

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

KULTURA ETA KIROL SAILA

Hutsa zuzentzea 2020ko otsailaren 28ko ALHAOn (24. zk.) argitaratutako 554 iragarkian, otsailaren 6ko 32/2020 Foru Aginduari buruzkoan (32/2020 Foru Agindua, dirulaguntzetarako deialdi publikoa onesten duena, ALHko eta Trebiñuko Enklabeke toki erakundeek sustaturik eraikinak kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku hartzeak bultzatzeko)

Hutsa atzeman da argitaratutako bederatzigarren klausularen (Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea) laugarren lerroaldean. Beraz, honako hau dioen lekuan:

“Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako “aurrerakina” kenduz. Guztirako gastuak justifikatzeko agiriak 2020ko abenduaren 30a baino lehen (egun horretan barne) aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzen justifikazioa Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hamargarren klausulan ezarritakoarekin bat etorri egin beharko da, dekretu horren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.”

Hau esan behar du:

“Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako “aurrerakina” kenduz. Guztirako gastuak justifikatzeko agiriak 2020ko abenduaren 30a baino lehen (egun horretan barne) aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzen justifikazioa Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hamaikagarren klausulan ezarritakoarekin bat etorri egin beharko da, dekretu horren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.”

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

Kultura zuzendaria

MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE